



IKUSPEGI EKO-FEMINISTAREKIN EGINDAKO HEZKIDETZA-PRAKTIKA EGOKIEN SISTEMATIZAZIOA ETA EDIZIOA

"BERDINTASUNAREN ETA JASANGARRITASUNAREN ALDEKO HEZKIDETZA-KOMUNITATE AKTIBOAK ERAIKITZEN:
PERTSONAK ETA PLANETA ZAINTZA ERDIGUNEAN"

AECID (2023/PRYC/001023)

InteRed
por una educación transformadora



Proiektua: *“Berdintasunaren eta jasangarritasunaren aldeko hezkidetza-komunitate aktiboak eraikitzen: pertsonak eta planeta zaintzea erdigunean”*

KREDITUAK

Argitaratzailea:



Izenburua: Ikuspegi ekofeministarekin egindako hezkidetza-praktika egokien sistematizazioa eta edizioa.

Egilea: Isis Labrunie y María Ovejero Alonso.

Koordinazioa: InteRed.

Ilustrazioa: Joly Navarro Rognoni.

Diseinua eta maketazioa: Rubén Íñiguez Pérez.

Data: 2026ko martxoa.

Material hau lizentzia honen pean dago: Creative Commons Atribución/Reconocimiento -NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional (CC BY-NC-SA 4.0)/ Creative Commons NonCommercial-ShareAlike 4.0 International 4.0 International.

Lizentziaren kopia bat ikusteko, joan hona : <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/>



Finantzaketa:

Argitalpen honen edizioa Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID) laguntza finantzarioarekin egin da, proiektu honen kargura: *“Berdintasunaren eta jasangarritasunaren aldeko hezkidetza-komunitate aktiboak eraikitzen: pertsonak eta planeta zaintzea erdigunean”* (AECID 2023/PRYC/001023). Gida honetako edukia InteReden erantzukizuna da, ez beste inorena, eta ez du nahitaez AECIDen iritzia islatzen.



AURKIBIDEA

Laburpen exekutiboa	4
1. Sarrera	6
2. Oinarriak eta prozesua	7
3. Proiektuaren deskribapena	10
4. Ikaskizunak	12
5. Hezkidetzako praktika egokiak	16
6. Gomendioak	22



Laburpen exekutiboa

Dokumentu honetan Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak (AECID) finantzatutako **Berdintasunaren eta jasangarritasunaren aldeko hezkidetza-komunitate aktiboak eraikitzen: pertsonak eta planeta zaintzea erdigunean** proiektuaren barruan InteReden lortutako ikaskizun nagusiak daude bilduta.

Proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko, Galiziako eta Gaztela eta Leongo zortzi ikastetxetan garatu zen, 2024an eta 2025ean. Horren bidez, irakasle, ikasle, familia eta gizarte-eragileak ekofeminismoen inguruko prestakuntza-prozesuetan, gogoeta-espazioetan eta mobilizazio-ekintzetan inplikatzeari lortu zen. Bi ikuspegi-tatik landu ziren horiek guztiak: interdependentzia (zaintza-sareak beharrezkoak ditugula bizirauteko) eta ekodependentzia (bizitzari eusteko ezinbestekoa dugula natura, eta harekiko mendekotasuna aitortzea). Ikuspegi horietatik abiatuta, proiektua hiru dimentsio osagarritan ardaztu zen: **ikasleen begirada kritikoa eta sormenerako gaitasuna lantzea**, aldaketarako eragile gisa; **irakasleen eta familien gaitasunak indartzea**, eta hezkuntza-komunitateen eta lurraldeko erakundeen arteko **sareak eraikitzea**.

InteReden gure lana hobetzeko bide gisa **hausnarketa kolektiboaren alde** egiten dugu. Jarrera horrekin, sistematizazio-prozesu bat garatu genuen, proiektua sakon ulertzera iristeko, zer gertatu zen, nola eta zer kondiziotan aztertuz. Hala, partaidetza-jardunaldi batzuen bidez eta dokumentuak berrikusiz, proiektua sei dimentsiotatik aztertu genuen (esparru kontzeptuala, testuingurua, eragileak, esku-hartzearen izaera, gauzatzea eta lorpenak), **esperientzia ezagutza kritiko bihurtzeko**.

Prozesu horri esker, praktika egokiak identifikatu ditugu, zailtasunak ere bai, ikaskizun estrategikoak atera ditugu, eta horiek aplikatzeko gomendio praktiko batzuk proposatzeko moduan gara. Horrela, lortutako **ezagutza hori etorkizuneko ekimenen zerbitzura jarri** nahi da, bai InteReden barruan, bai pertsonak eta planeta zaintzea erdigunean jarriko duen eraldaketa baten alde konprometitutako beste hezkuntza-erakunde eta -komunitate batzuetan.

Sistematizazio-prozesuan lortutako ikaskizun nagusietako bat zera izan da, **esparru teorikoak lurreratu** eta eguneroko jarduna orientatzeko **tresna praktikoetara ekarri** beharra, adierazle, metodologia, hizkera eta dinamika koherenteak zehaztuz.

Bestalde, egiaztatu dugu hezkuntza-komunitatearekin lan egitean ezinbestekoa dela **abiaburuko desparekotasunak aintzat hartzea, batez ere amek eta emakumezko irakasle nahiz zaintzaileek generoarekin eta asti-eskasiarekin lotuta dituztenak**, eta familiek parte hartzeko estrategia errealistak eta mailakatuak diseinatzea.

Prozesuan zehar egindako gogoetak garbi erakutsi digu **irakasle-talde eragileak** sortzea, **proiektuko jarduerak eskola-egutegiekin bat** etor daitezen saiatzea eta **materialak alderdi kultural eta hizkuntzazkoetara egokitzea** funtsezkoa dela jendeak esku-hartzeak bereganatzea lortzeko. Gainera, behar-beharrezkoa da **proiektu osoan zehar lantalde teknikoak behar bestekoak** izatea, gai izan daitezen epe ertain eta luzera harremanei eusteko, hezkuntza ekofeministaren eragin politikoa eta legimititate soziala indartzearren lurralde-sareetan aktiboki parte hartzeko, eta lagunduak eta zainduak senti daitezen.

Prozesuan identifikatu diren praktika egokien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, hauek: **metodologia berritzaileak eta jakintza tradizionalak konbinatzea**, tresna didaktikoak zabaltzen dituelako eta lurraldearekiko lotura indartzen duelako; **material didaktiko irisgarriak eta bisualki erakargarriak** sortzea, eta **ikas-kuntza teilkatua** bultzatzea, non ikasleak diren protagonista, materialak sortuz eta berdinkideen artean edukiak erreplikatur. Praktika egoki horiek garrantzi handikoak dira, estrategikoak, proiektuaren jarraitutasuna eta irismena handitzeko.

Sistematizazio-prozesua bera, kanpoko bidelaguntza espezializatua izanda, positiboki baloratu da, **erakunde mailako zaintza-praktika bat eta ezagutza modu estrategikoan kudeatzeko praktika bat** izan dela iritzita. Zer lortu den eta zer dagoen hobetzeko identifikatzeko modua eman zuen, bai eta hezkuntza-eraldaketak zer kondizioak errazten edo zailtzen dituzten ulertzeko modua ere. Ariketa horrek berretsi egiten du garrantzitsua dela gogoeta-espazio formal, aldizkako eta partaidetzazkoak txertatzea, esku-hartzeak doitu eta hobetu ahal izateko.

Dokumentu honek ikaskizun transferigarriak eta gomendio praktiko zehatzak eskaintzen ditu, hezkidetza-prozesuen sakontasuna eta jasangarritasuna indartzeko baliagarriak. Besteak beste, **partaidetzazko diagnostikoak** egitea ikuspegi intersektionalarekin, ekintzak **curriculum formalean** txertatzea, **komunikazioa** esku-hartzeen **ardatz estrategiko gisa** planifikatzea, ebaluazioan **metodologia kualitatiboak** txertatzea eta **ikasleen parte-hartze loteslea** sustatzea subjektu politiko gisa.

Dokumentu honen bidez sistematizazio-prozesuan lortutako aurkikuntzen zabalkundea egitea erabaki dugu, InteReden uste dugulako, sendo uste ere, gogoetak partekatzeak eta esperientziak trukatzek gure egitekoa aberastu eta eraldaketa bultzatzen dutela.



1. Sarrera

Gizarte-, ingurumen- eta zaintza-krisiak jotako garaiak ditugu hauek. Sistema guztiz bidegabea eta jasanezina da, bizi-baldintzak degradatu eta desparekotasunak areagotzen ditu, eta horren aurrean ekofeminismoek iraultzailea den zerbait defendatzen dute: **jar dezagun bizitza erdigunean**. Edo, bestela esanda, eman diezaiogun lehentasuna giza bizitzaren eta bizitza naturalaren iraunkortasunari, onura ekonomikoaren edo hazkunde materialaren gainetik.

InteReden badakigu hezkuntza funtsezko pieza dela paradigma-aldaketa horretarako. Horregatik, konpromiso irmoa dugu hezkuntza eraldatzaile baten alde, partaidetza aktibo eta konprometitua sortuko duena, justizia, genero-berdintasuna eta ingurumen-jasangarritasuna lortzearren.

2024an eta 2025ean konpromiso hori mamitu egin zen *Berdintasunaren eta jasangarritasunaren aldeko hezkidetza-komunitate aktiboak eraikitzen: pertsonak eta planeta zaintzea erdigunean* proiektuan, AECIDek finantzatua, non EAEko, Galiziako eta Gaztela eta Leongo hezkuntza-komunitateetako bost mila lagun baino gehiagok parte hartu zuten. Esperientzia boteretsuak sortu ziren ibilbide horretan; bizipen horiek guztiek gure etorkizuneko ekintzak bideratuko dituzte.

Badakigu, ordea, edozein esperientzia, hausnartu eta partekatzen ez bada, indarra galdu eta desegin egiten dela, eta, horregatik, sistematizazio-prozesu hau bultzatzea erabaki genuen: bizi izandakoari sakontasunez begiratzeko, eta ulertzeko zer egin zen, bai eta **nola, zergatik eta zer kondiziotan izan zen posible** ere. Helburua zen **egindakoa eta oroitzapenak ezagutza kritiko bihurtzea**, eta balioduna izatea ez soilik gure erakundearentzat, baizik eta guk bezala uste dutenentzat **heztea ez dela soilik edukiak transmititzea, baizik eta kontzientzia kritikoa, erantzukidetasuna eta ekintza kolektiboa lantzea ere bai**.

Horregatik, dokumentu hau **praktikoa eta kolektiboa izateko bokazioz** sortu da. Ingurumenarekiko errespetuzkoa eta eraldatzailea izango den hezkuntza baten alde egiten edo egin nahi duten **hezkuntza-komunitateentzat eta gizarte-erakundeentzat baliagarria** izan nahi du. Orrialde hauetan sistematizazio-prozesuan identifikatutako praktika egokiak azalduko ditugu, bai eta ikaskizun transferigarriak ere, eta, horietan oinarrituta, zenbait gomendio zehatz emango ditugu, antzeko proiektuetan **erreplikatu edo egokitu** ahal izateko.

Izan ere, ekofeminismotik heztea sareak ehuntzea da, prozesuak zaintzea, eta itxaropen antolatuari eustea.



2. Oinarriak eta prozesua

Sistematizazioa egiteko, kanpoko aholkularitza-zerbitzu baten bidelaguntza izan genuen, genero-ikuspegiaren ardatzetik partaidetzazko erakunde-plangintzan eta hezkuntza eraldatzailean espezializatua. Proiektuan sortutako dokumentazioa eta produktuak berrikusi ondoren, proposamen metodologiko bat diseinatu zuten neurrira, proiektuan parte hartutako InteRedeko lantalde teknikoko kideek bi go-goeta-jardunaldi trinko egin zitzaizten (bai egoitza zentralekoak, bai EAEko, Galiziako eta Gaztela eta Leongo ordezkarietakoak), aholkularien bidelaguntzarekin.

Jardunaldietan hamahiru orduetik gorako lan kolektiboa egin zen, partaidetzazko dinamiken bidez, hausnarketa kritikoa sustatzeko. Kontua ez zen izan soilik emaitzak berrikustea, baizik eta geure buruari galdetzea:

**ZERGATIK
GERTATU ZIREN
PROZESUAK
GERTATU ZIREN
BEZALA?**

**ZER IKASKIZUN
TXERTATU BEHAR
DITUGU,
AKATSIK EZ
ERREPLIKATZEKO?**

**ZER
KONDIZIOK
EGIN
ZITUZTEN
POSIBLE?**

**ZER PRAKTIKA
DIRA
ERREPLIKATZEKO
MODUKOAK?**

SISTEMATIZATZEAK ZERTARAKO BALIO DUEN

Prozesuaren helburu nagusia izan da **hezkidetzaren arloan egindako esperientzietatik abiatuta ezagutza kritiko eta kokatua sortzea**, hezkuntza-komunitate ekosozial eta ekofeministak indartzeko lagungarria izan dadin, analisirako, eraldaketarako eta etorkizunera proiektatzeko gaitasuna emanez.

Zehatzago esanda, sistematizatzeari esker, lortu genuen:

- Esku-hartzearen sakoneko **logika** ulertzea, emaitzetatik harago.
- **Praktika egokiak eta lortutako ikaskizunak** identifikatzea, ikuspegi ekofeministatik.
- Aztertzea zer-nolako eragina izan zuten **lurraldez lurraldeko testuinguruek** eta lurralde bakoitzean egindako **egokitzapenak**.
- Eremu ekosozialean etorkizuneko proiektuetarako **erreplikagarriak diren elementuak** ateratzea.
- Erakundearen **identitate ekofeminista** eraikitzen laguntzea.
- **Komunikazio-produktu hau** egitea, ikasitakoa partekatu eta sareko lana indartzeko.

SAKON BEGIRATZEKO SEI ARLO

Proposamen metodologikoak **dokumentuen analisia eta hausnarketa presentziala** uztartu zituen, eta bizi izandako prozesuan jarri zuen azpimarra. Elkarriketa-zirkulutan jardun zen, eta hezkuntza-espazioetan sustatu ohi ditugun metodologiaren modukoak erabili ziren: parte-hartze ekitatiboa, entzute aktiboa, horizontaltasuna, eta denborak eta ahotsak zaintzea. Ez zuten zuzenean parte hartu prozesuan aritutako hezkuntza-eragile guztiek, baina haien kontakizun, material eta ebidentziak presente egon ziren, analisisiko funtsezko zati gisa.

Hausnarketa ordenatzeko, analisia sei dimentsiotan egituratu genuen, elkarren artean lotuak eta zenbait galdera gidarik zeharkatuak, zeinak orientatu baitzuten bai partaidetza-jardunaldiak eta bai dokumentuen berrikuspena:

Esparru kontzeptuala: proiektua InteReden misio, printzipio eta identitate ekofeministarekin bat datorren berrikusi genuen, praktikaren eta diskurtsoaren arteko koherentzia aztertzeko.

Testuingurua: aztertu genuen ea proiektuan zer-nolako eragina izan zuten inplementatutako lurraldeetako errealitate sozial, kultural eta politikoek (EAE, Galizia eta Gaztela eta Leon) eta zer egokitzapen egin ziren bakoitzean tokian tokiko behar espezifikoak erantzuteko.

Eragileak: esku-hartzean inplikaturako eragileak identifikatu genituen, horien jakintzak, etapa bakoitzean izandako partaidetza-mailak eta parte hartzeko oztopoak, bai eta InteReden antolaketa-unea eta esku-hartzean izandako inpaktua ere.

Proiektuaren izaera: aztertu genuen esku-hartzearen formulazioak haren inplementazioa nola eta zergatik indartu edo ahuldu zuen, boterearen, generoaren eta jasangarritasunaren ikuspegietatik.

Gauzatzea eta hobekuntzak: gauzatzea bera modu kritikoan berrikusi genuen: zer egin zen, nola egin zen, zer doikuntza egin behar izan ziren eta zer ikuspegi berritzaile azaleratu ziren.

Lorpenak: adierazleetatik harago, jomugen, jardueren, pertsonen eta teltuinguruen arteko koherentzia aztertu genuen, eta ontzat baloratu genuen erdietsitako lorpenak eta, batez ere, lortutako ikaskizunak, etorkizuneko esku-hartzeak orientatzeko erabilgarriak.

Ardatz horietako bakoitzari buruzko hausnarketa egitean praktika egokiak eta ikaskizunak identifikatuz joan ginen, dokumentu honetan bildutakoak, hain zuzen.



3. Proiektuaren deskribapena

InteRedek AECIDen laguntzarekin garatutako **proiektu** hau gizarte-eraldaketaren parte aktibo izan nahi duten hezkuntza-komunitateak indartzeko asmoz sortu zen, erdigunean pertsonak eta planeta zaintzea jarriko duen eraldaketa baten alde, 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat.

Horretarako, hezkuntza-komunitate guztiarengana jo genuen (irakasleak, zuzendaritza-taldeak, familiak, ikasleak eta gizarte-erakundeak), ezinbestekoa baita denek parte hartzea, hezteko zeregina partekatua den heinean.

EAEko, Galiziako eta Gaztela eta Leongo zortzi ikastetxetan gauzatu zen proiektua, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta heziketa-zikloetan (proiektuko zenbait jardueratan unibertsitateko ikasleak ere bai), arreta berezia jarrita horrelako ekimenetan sartzeko aukera gutxiago izan ohi duten komunitate eta landa-inguru-neetan.

ZER NAHI GENUEN?

Ikastetxeei lagundu nahi genien, arreta ikasleen ekimenean eta irakasleen prestakuntzan jarrita, pentsamendu kritikorako, partaidetzarako eta konpromisorako espazio gisa duten zeregina indartzea ekarriko zuen prozesu bat egin zezaten. Horretarako, Giza Eskubideen ikuspegitik eta ikuspegi ekofeministatik egin genuen lan, eta horrek aukera eman zigun zenbait ideia giltzarritan sakontzeko, hala nola **ekodependentzia** (bizitzari eutsiko badiogu, naturaren mendeko garela) eta **interdependentzia** (komunitatearen ongizatea lortuko badugu, elkarren arteko loturak eta zaintza ezinbestekoak direla). Horrela, proiektua hiru ardatzetan banatu genuen:

- **Ikastetxeetako langileak eta familiak indartzea (1. EMAITZA):** hezkuntza-ren esparruan berdintasuna eta ingurumen-jasangarritasuna txertatze aldera, irakasleen eta familien artean ezagutzak, trebetasunak eta aldeko jarrerak sustatzeko, prestakuntza-saioak eta sentsibilizazio-ekintzak.

- **Ikasleak gaitzea (2. EMAITZA):** ikasleak prestatzeko espazioak eta materialak garatzea, sistemaren krisi ekosozialaren kausak identifikatzeko eta Giza Eskubideen eta lurraldearen defendatzaileen lana aitortzeko. Gizarte-eraldaketa sustatzeko mobilizazio artistikoak (artibismoa) eta kalekoak babestea.

- **Saretuta lan egitea indartzea (3. EMAITZA):** parte hartutako hezkuntza-komunitateen arteko loturak sortzea, ikastetxeetan bildutako ikuspegi ekofeministako jakintzak, esperientziak eta praktika eraldatzaileak trukatzeko topaketen bidez, eta, horiek indartze aldera, publiko zabalarentzako komunikazio-baliabideak hedatzea.

NOLA EGIN GENUEN?

Ikasleekin partaidetzazko eta bizipenezko metodologiak erabiltzearen alde egin genuen. Horretarako, ikaskuntza esperientzialeko tresnak erabili genituen (fotoahotsa, podcasta eta fanzinea), tokiko errealitatea erronka globalekin konektatzeko eta, hala, ikaskuntza esanguratsu eta konprometitua errazago lortzeko. **Jakintza tradizionalak eta tokiko kultura berreskuratu** genituen lurraldeen aldeko mobilizazioetan aplikatuta, lurraldearen kultura berri baten aldeko aldarrikapen gisa; adibidez, Galiziako *regueifak*, antzerki soziala eta bideo dokumentala erabiliz. Gai ekofeministetan **irakasleen gaikuntza** indartu genuen, hurbileko bidelaguntza emanez eta onlineko prestakuntza-saioen bidez. Gizarte- eta hezkuntza-arloko etorkizuneko profesionalei ere bidelaguntza eman genien (Santiago de Compostelako Unibertsitatekoak eta zenbait heziketa-ziklotakoak), prestakuntzaren hasieratik bertatik begirada eraldatzailea txertatuta.

Proiektua bereziki bat zetorren GJHetako 4.7 xedearekin (“Ikasle guztiek garapen jasangarria bere aldaera guztietan sustatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eskuratzeko dituztela ziurtatzea”), justizia sozialera, genero-ekitatera, klimaren aldeko ekintzara eta komunitate jasangarriak eraikitzen bideratutako hezkidetzak sustatzen baitzuen.



4. Ikaskizunak

Ikaskizunak **esperientziatik edo aritzetik sortzen diren lezio edo ikaspenak dira, batez ere bidean topatutako zailtasun eta erronketatik eta hasieran aurreikusi gabeko elementuetatik sortutakoak**, eta, modu kritikoan aztertzean, etorkizuneko ekintzak hobetzeko orientabide gertatzen dira.

Prozesu honetan, ikaskizunak orientabide praktiko gisa formulatu ditugu, InteRedi ez ezik inplementatutako proiektuaren antzeko ekimenak sustatzen edo sustatu nahi dituzten bestelako erakunde edo eragileei ere zuzenduak, sistematizazio-prozesuan identifikatu ziren hobetzeko arlo horiek etorkizunean errepikatu ez daitezen. Lau mailatan egituratuta azalduko ditugu, errazago ulertuko direlakoan eta honelako esku-hartzeek izaten dituzten faseetan aplikatzea errazagoa gertatuko delakoan: **estrategikoa, identifikazioa eta diseinua, inplementazioa eta jarraipena**.

MAILA ESTRATEGIKOA

A1. Ikuspegi teorikoak lurreratu egin behar dira.

Erakunde ororen jardunak zer esparru kontzeptualek eta zer baliok orientatzen dituzten esplizituki zehaztea funtsezkoa da egingo diren proiektuetan egiaz txertatuko direla bermatzeko (ikuspegi ekofeminista, hezkuntza eraldatzailea, genero-ikuspegikoa eta interseksionala, adina eta aniztasuna, besteak beste). Ikuspegi horiek zedarrarituko dituen dokumentazio estrategikoa edukitzea, beraz, beharrezkoa da, baina ez nahikoa: plangintza horrekin batera, tresna praktikoak ere behar dira, parametro zehatzen bidez-eta ikuspegi horiek eraginkor bihurtzeko balioko duten tresna praktikoak, hain zuzen, egiaz eta modu eraldatzailean txertatuko direla bermatzeko.

A2. Ikaskizunak sistematizatzea eta transmititzea funtsezkoa da.

Langileen errotazioa oso handia izan ohi da bai ikastetxeetan eta bai Herritar-tasun Globalerako eta Garapen Jasangarrirako Hezkuntzako proiektuekin lotu-tako erakundeetan, eta, horren aurrean, behar-beharrezkoa da ezagutza ondo kudeatzea, gordetzea eta hedatzea, iraganeko esperientziak kontuan hartzen direla bermatzeko, akatsik errepikatu ez dadin.

A3. Hezkuntza-komunitatearekin lan egiteko, familiak aktiboki interpelatu behar dira.

Gure testuinguruan, hezkuntza-komunitatearen nozioak ez du garapen luzerik. Ikuspegi horretatik jarduteko -ikastetxeetako langileak, ikasleak, familiak eta inguru soziala osotasun interdependente gisa ulertuta-, horren aldeko apustu iraunkorra egin behar da, apurka-apurka identitate kolektiboa eta erantzunkidetasuna eraikitzeke eta horri eusteko. Familiei dagokienez, bereziki garrantzitsua da hori: aldeztu aurretik elkarren arteko loturak sortzeko eta elkar aitortzeko lanik egin gabe haiek proiektuetan sartzeak gainkarga eta frustrazioa sortu ditzake, gerta baitaiteke eskatutako partaidetza-maila posible izateko kondizio material, denborazko edo kultural nahikorik ez izatea.

A4. Lantalde teknikoa behar bestekoa izatea funtsezkoa da.

Erakundeek teknikari egokiak eta behar bezainbeste izan behar dituzte proiektuaren fase guztietan, ekintzaren eraginkortasuna eta inpaktua sustatzeko. Era berean, giza baliabideen plangintza egitean, lan-karga errealistetan oinarritu behar da, langileek ahituta bukatu ez dezaten.

IDENTIFIKAZIOA ETA DISEINUA

A5. Partaidetzazko diagnostikoak oso tresna baliotsuak dira proiektuak eta esku-hartzeak formulatzeko.

Lurraldeen ezaugarriak, beharrak eta gaitasunak identifikatzeko diagnostikoak egiteak aukera ematen du proiektu egokiagoak diseinatzeko eta komunitateek horien inplementazioan konpromiso handiagoa hartzeko. Horrelako diagnostikoei esker, gainera, inplementazioan parte izango direnen espektatibak hobeto kudeatzeko informazio giltzarria lortzen da, estrategiak hartu daitezke esku-hartzea lekuan-lekuan dagoen aniztasun sozial, kultural eta generokoarekin bat datorrela bermatzeko, eta errazagoa da adierazleak egokitzea eta desberdintzea testuinguru bakoitzeko ezaugarrien arabera.

A6. Familiekin lan egiteko, estrategia errealistak behar dira.

Familia guztiek ez dituzte ez asti, ez aukera eta ez baliabide berdinak, eta, beraz, haiek parte hartzea nahi bada, lehen-lehenik eta aurretik ikaskuntza-fase bat egin behar da, eta, fase horretan, pixkanaka eta modu jarraituan inplikatu ahal izateko estrategiak txertatu, batetik, eta, bestetik, irakasleekiko koordinazioa indartu, eskolaren eta familiaren arteko lotura sortzeko, egiazkoa eta ekitatiboa. Bestalde,

edozein ekintza inplementatu aurretiko partaidetzazko diagnostikoetan familiak eta haien behar eta interesak txertatzea ere ezinbestekoa da egingo diren jardueretan familiek inplikazioa eta interesa izatea nahi bada. Gainera, analisi hori genero-ikuspegitik ere egin behar da, eta, ikastetxearen eta familien arteko lotura nagusia amak eta zaintzaileak izan ohi direnez, pertsona horien asti-eskasiaren kausak kontuan hartu behar ditu, eta horiek arintzeko estrategiak aurreikusi.

A7. Ikastetxeen denboretara eta kronogrametara egokitzea erabakigarria da ekintzek irismena izateko.

Ikastetxeek aldeztu aurretik zehaztu ohi dute plangintza akademikoa, askotan aurreko ikasturtearen amaieran itxi ohi dute jardueren egutegia, eta horrek nahikotxo baldintzatzen du ekimen berriak sartu ahal izatea. Dinamika hori kontuan hartzen ez bada, gertatzea dauka egutegi aldetik bat etorri ez eta jarduerarik egin ezinik geratzea luzaroan. Horregatik, proiektua diseinatzean eskola-egutegiaren logika txertatzea funtsezkoa da curriculumarekin artikulatzea errazteko, denborak optimizatzeko eta proiektuaren inpaktua handitzeko. Bestalde, jarduerak ikastetxeko beste ekimen batzuekin bat etortzeko edo elkar osatzeko moduan planifikatzeak denborak eta baliabideak bateragarri izatea errazten du, eta familien eta bereziki amen parte-hartzea areagotzen du.

A8. Proiektuen jarduerak sareak eraikitzea jaso behar dute.

Komunitate-sareak, erakunde artekoak eta sare politikoak bultzatzen badira, eragin politikorako gaitasuna eta koordinazioa indartzen dira, eta horrela errazagoa da bermatzea hezkidetzak, berdintasunak, ekologiak eta era horretako lan-ildoek iraun egingo dutela erakundeetan aldaketak edo kontrakotasunak gertatuta ere. Proposamen honek edozein proiekturen iraupena gainditzen du, baina artikulatuko baldin bada, baliabideak behar dira eta aurrekontuetan jaso behar da.

INPLEMENTAZIOA

A9. Komunikazioa ardatz giltzarrietako bat da gizartea eraldatzeko.

Jarduerak komunikatzea eta zabalkundea egitea, bai hasieran eta bai proiektuaren inplementazioak dirauen denbora guztian, funtsezkoa da haien ikusgaitasuna, inpaktua eta irismena ziurtatzeko. Helburua kontakizuna eraikitzea da, zentzu partekatua sortzea, eta komunitatea eraldaketa-prozesuaren partaide bihurtzea. Komunikazioa planifikatua eta denboran zehar iraunkorra denean, artikulazio kolektiborako, legitimazio sozialerako eta ikaskuntzak areagotzeko tresna bihurtzen da.

A10. Irakasleak prestatzeko jardueren diseinuak haien parte-hartzea eta interesa baldintzatzen ditu.

Prestakuntza-programak luzeegiak badira, edo jarduera sinkroniko askokoak (ordutegi finkoa izatea, adibidez, nahiz eta birtualak izan), gerta daiteke irakasleek motibazioa galtzea eta bertan behera uztea. Beren denbora mugatua prestatuntza-saioetan ematea konpentsatu egin behar da, pizgarri erakargarriak eskainiz, parte hartzea ziurtatu nahi bada.

A11. Gerta daiteke hizkuntzak eragina izatea familien parte-hartzean.

Gerta daiteke hizkuntzak nolabait mugatzea ikastetxeko eta proiektuko jardueretan parte hartzea familiek; batez ere, migratzaileek eta bertako hizkuntza ez dakitenek (proiektu honetan, zehazki, euskara eta galiziera). Hezkuntza-komunitateak oztopo horiei buruzko ezagutza handiagoa izateko estrategiak txertatzea, batetik, eta komunikazioa eta materialak egokitzea jatorria, kultura eta beste alderdi intersektional batzuk kontuan hartuta, bestetik, lagungarri gertatuko da familia guztien parte-hartzea lortzeko. Horretarako, aurretik diagnostikoa egin beharko da, testuingurua ezagutzeko.

JARRAIPENA

A12. Espektatibak zein diren aldez aurretik garbi jakiteak frustrazioak murrizten ditu eta parte-hartzea errazten du.

Erakundeko langileei eta eskubideen eta erantzukizunen titularrei proiektuaren helburu, erantzukizun eta mugak modu gardenean eta behar besteko aurrerapenez jakinaraztea oso lagungarria da proiektua gauzatzean ez ahitzeko, frustrazioak prebenitzeko eta lankidetzak indartzeko.

A13. Jardueren ebaluazioan ikuspegi kualitatiboa bultzatzea.

Metrika kuantitatiboetan soilik oinarritzen bagara (esaterako, prestatuntzak egin aurreko eta osteko testetan, edo jardueren jarraipena kopuruetan soilik oinarrituta egitea), ekintza batek benetan izandako inpaktuaren ikuspegi mugatua izango dugu, eta etorkizunean hobetzeko balio handiko informazioa galtzen ariko gara. Metodo kualitatiboak eta partaidetzazkoak txertatzeak (dokumentu honetako azken atalean jasotakoak, adibidez) jarrera-aldaketei, ulermenari eta praktikei buruzko ikaskizun baliotsuagoak jasotzeko aukera ematen du.



5. Hezkidetzako praktika egokiak

Proiektua sistematizatzeko prozesuan zehar, gure ustez nabarmentzekoak diren praktika egokiak identifikatu ditugu; hau da, **proiektuan sartu ditugun ekintza edo estrategia aurreikusiak edo ustekabekoak**, etorkizuneko esku-hartzeetan kontuan hartzekotzat edo erreplikatzekotzat dauzkagula-eta **gure ustez balio erantsia dutenak**.

Praktika egoki horiek azalduko ditugu orain, ikaskizunen atalean bezala lau mailako egiturari jarraituz.

MAILA ESTRATEGIKOA

B1. Gizarte- eta hezkuntza-arloko prestakuntzan eragitea funtsezkoa da hezkuntza eraldatzaile baterako.

Gizarte- eta hezkuntza-adarrekin lotutako ikasketetan dabilten ikasle eta irakasleekin lan egitea (bai heziketa-zikloetakoak, bai unibertsitate-mailakoak) hezkuntza eraldatzailea sustatzeko estrategikoa dela ikusi da. Ikasle eta irakasle horiek parte hartzeak bide ematen du ikuspegi kritikoak, hezkidetzakoak, genero interseksionalekoak eta ekofeministak prestakuntzaren hasieratik bertatik txertatzeko, eta praktika inklusiboak, ekitatiboak eta jasangarriak sustatzeko gai izango diren etorkizuneko profesionalak sustatzea dakar horrek.

B2. Unibertsitateko ikasleen parte-hartzea aitortzea ECTS kredituen bidez.

InteReden eta Santiago de Compostelako Unibertsitatearen arteko hitzarmen baten bidez, ikasleentzako prestakuntza unibertsitateko kredituen bidez aitortzea lortu zen, eta ikasleen parte-hartzea eta motibazioa sustatu zuen horrek.

B3. Sareak eta loturak indartzeak eragin politikoa indartzen du..

InteRed autonomia-erkidegoetako GKEn koordinakundeetako eta zenbait gizarte-mugimendutako kide izateak aukera eman dio zenbait espazio politikotara iristeko edo proiektuak normaltasunez garatzea —eta, oro har, hezkunt-

za-komunitateek eragile politiko gisa duten egiteko garrantzizkoa— geldia-razten duten korapiloak desblokeatzeko. EAEn, adibidez, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza taldeko kide da InteRed, eta gai amankomunen inguruan artikulatzeko eta eragiteko espazio gisa funtzionatzen du talde horrek.

B4. Sinergietarako aukerak aprobetxatzeak eta inguru hurbilekoekin loturak izateak etorkizuneko esku-hartzeak errazten ditu.

Gai ekosozial eta feministak lantzen diren hainbat topagune izaten dira autonomia-erkidegoetan (unibertsitate-jardunaldiak, auzoetako taldeak, guraso-elkar-teen topaketak...), eta horietan erakundearen lanaren berri ematea eta sinergia berriak sortzea etorkizuneko proiektuak garatzeko lagungarri gerta daiteke. Bestalde, garbi ikusi da erakundeak ikastetxe, irakasle, guraso-elkarte eta abarrekin lotura izaten jarraitzeak, baita proiekturik abian ez denean ere, erraztu egiten duela esku-hartzeen hasiera edo jarraipena.

IDENTIFIKAZIOA ETA DISEINUA

B5. Ikastetxeak finkatzeak eta irakaslez osatutako talde eragile bat identifikatzeak partaide izateko sentimendua areagotzen du.

Proiektua azaltzen den unetik bertatik hartan inplikaturik eta proiektuarekiko motibatuta dauden irakasleak ondo identifikatzeak (proiektuaren “talde eragile” ere izan daitezkeenak) asko errazten du ikastetxeak proiektua benetan bere egitea eta hartan parte hartzea. Ikusi da, gainera, horri gehitzeko beste faktore garrantzitsu bat dela talde horretako kideek lanpostu egonkorra izatea (bitarteko irakasleak saihestea) eta zuzendaritza-taldekoen babesa izatea. Bestalde, ikastetxe berberekin modu jarraituan lan egitea eta, hala, epe ertain-luzera harremana izatea bultzatzea lagungarria da esku-hartzeak babestu ditzaten.

B6. Proiektuko ekintzak curriculum-programan sartzeak irakasleek inplikazio handiagoa izatea sustatzen du.

Proiektuko prestakuntza-edukiak irakasgai zehatzetan txertatu ziren (adibidez, EAEn, ziklo soziosanitarioetako Jasangarritasuna irakasgai), bai eta zeharka ere (esaterako, Gaztela eta Leonen, Gizarteratzea, Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta eta Haur Hezkuntza heziketa-zikloetan). Esperientzia horrek erakutsi du jarduerak eskola-curriculumera egokitzea lagungarria dela, batetik, jarraitutasuna izatea errazten duelako, eta, bestetik, edukien plangintza didaktikorako eta garapenerako oinarri gisa balio duelako eta, irakasleen lan-karga txikitzen duenez, haien motibazioan eragin zuzena duelako. Bestal-

de, proiektuko jarduerak antzeko edukiak dituzten irakasgaiekin artikulatzeak ikuspegi eraldatzaileak legitimatzen ditu hezkuntza-esparru formalean, eta genero-berdintasuna, ekologia eta gisa horretako bestelako gaiak lantzeko baliabideak ematen ditu.

B7. Proiektua bizia, malgua eta testuinguru bakoitzera egokitua bada, arrakasta izateko aukera handiagoak ditu.

Lurralde bakoitzak berezitasun jakin batzuk ditu, eta hasieratik kontuan hartu eta islatu egin behar dira. Edonola ere, gerta daiteke proiektua gauzatzean aurreikusi gabeko aldaketak sortzea, berezitasun horien ondorioz, eta, beraz, garrantzitsua da hura prestatzean formula zurrunik ez ezartzea eta egokitzenak egiteko tartea uztea.

B8. Hartzaileak zein diren eta zer interes dituzten jakiteak esku-hartzea markatzen du.

IFuntsezkoa da jarduera bakoitzaren onuradun edo hartzaileak zein diren eta zer ezaugarri dituzten garbi identifikatzea, egiten diren produktuak erakargarriak eta praktikoa gertatuko zaizkiela ziurtatzeko. Alde horretatik, sortutako ikus-entzunezko batzuk azpimarratu nahi ditugu, lortu baitzuten onuradunen arreta bereganatzea, ordezkatuak sentitu zirelako, bai lurraldeari eta hizkuntzari zegokienez, bai adin-tartearengatik.

- “*El futuro no se vende. Mujeres defensoras en pie de tierra*” bideoa, hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=EXjfBmOFA6Y&t=609s>.

B9. Jarduerak eta produktuak hautatzean lehenagoko esperientzietan oinarritzea garrantzitsua da.

Proiektua inplementatzen ari den erakundearen ezagutzetatik elikatzea eta aurreko beste proiektu batzuetan emaitza positiboak eman dizkion praktika egokiak kontuan hartzea lagungarria da lurraldeen eta ordezkartzen arteko komunikazioa eta produktu- eta esperientzia-trukea gertatzeko. InteReden, adibidez, fotoahotsaren teknika erabili izan dugu, ikasleek fanzineak egitea ere bai, eta, aurreko proiektu batzuetan oso harrera ona izan zutela-eta, berriro erabili ditugu oraingoan.

INPLEMENTAZIOA

B10. Jarduera eta produktu bakoitza egokitzea, aniztasunaren aberastasuna aintortzeko.

Proiektua gauzatzean, funtsezkoa izan da unean uneko testuinguruaren ezaugarri zehatzetara egokitzea, hizkera eta mezuak moldatuz, batetik, eta, bestetik,

materialak landu eta hizkuntza koofizialetara itzultzea, EAEren eta Galiziaren kasuan. Hori funtsezkoa izan da parte-hartzaileak identifikatuta senti zitezen, eta lurraldearekin eta lurraldea zaintzearekin lotura handiagoa sustatu da horrela.

B11. Metodologia desberdinak erabiltzeak ikasleen motibazioa handitzen du.

Metodologia batzuk berritzaileak gertatzen zaizkio hezkuntza-komunitateari, eta kontakizun eraldatzaileak sustatzen dituzte: fotoahotsa, podcasta, horma-pintura eta fanzineak, adibidez. Bada, horrelakoak praktikan jartzea, eta aldi berean eskuzko metodologiekin tartekatzea edo uztartzea, “eskuekin egite” horri balioa emanez, oso lagungarria izan da ikasleen motibazioa bultzatzeko. Teknika eta euskarri digitala eta eskuzkoa txandakatze horrek hizkuntza pedagogikoak zabaltzen ditu, eta ikasteko eta parte hartzeko moduak dibertsifikatzeko beharrari erantzun bat ematen dio.

Bestalde, lurraldeko jendea eta baliabideak sartzeak (adibidez, Galizian *requeifak* eta Gaztela eta Leonen antzerki soziala) prozesua aberastu du, ikastetxeen eta komunitatearen arteko lotura indartu, eta “ikasgela porotsuak” sustatu: ingurura zabalik eta inguruarekin konektatuta dauden ikasgelak.

METODOLOGIEN ADIBIDE PRAKTIKO BATZUK

Ingurunea eta komunitatea zaintzeko fanzine ekosozialak
Ikastetxea/erakundea: Herri Eskola, Lekeitio (Bizkaia)

Etorkizuna zaintzea: jasangarritasuna eta zaintzak Lanbide Heziketatik, antzerki sozialaren bidez
Ikastetxea/erakundea: La Milagrosa y Santa Florentina ikastetxea, Valladolid (Gaztela eta Leon)

Pentsamendu kritikoa eta ekintza ekosoziala Bigarren Hezkuntzatik
Ikastetxea/erakundea: Pedro Florian BHI, Redondela (Pontevedra, Galizia)

Hezkuntza ekosoziala testuinguru ez-formaletan eta konplexutasun handikoetan
Emakume askatasun gabetuen zentroa (Madril)

Praktika ekosozial egokiak sistematizatzeko fitxen proposamena

B12. Ikaskuntza teilakatuak inpaktua handitzen du.

Ikasleak prestakuntza-eragile bihurtzeak ikasitakoek iraunkortasuna eta jarraitutasuna izatea ziurtatzen du eta, aldi berean, irismena handiagoa izatea lortzen da; batez ere, prozesuak analisi kritikoa sustatzen duenean eta material didaktiko propioen sorkuntzan lidergoa ikasleek izatea bultzatzen denean. Galizian garbi ikusi zen hori: ikastetxe bateko ikasleek baliabide pedagogiko bat prestatu zuten (“*A Aldea dos Coidados*” azalpenezko panela) eta, gero, beste ikastetxe batzuetako ikasleei aurkeztu zieten. Bestalde, InteRedek material

hori erabili ahal izan zuen zenbait hezkuntza-mailatako prestakuntza-saioetan, eta horrela garbi erakutsi zen nola hezkuntza-komunitateak sortutako produktu pedagogiko batek sortu den testuingurutik harago bidaiatu, inspiratu eta inpaktua handitzen jarraitu dezakeen.

B13. Ikasleak protagonista egiteak aldaketa-eragile aktibo bihurtzen ditu.

Parte hartu duten irakasleek adierazi dutenez, ikasleen autonomiaren alde egiteak eta haien pentsamendu kritikoa indartzeak ahaldu egiten ditu beren mezu eta aldarrikapen ekosozialak sortzeko, eta mobilizazioak eta eraldaketa sozialeko prozesuak bultzatzeko ezinbesteko eragile bihurtzen ditu.

B14. Irakasleek ekofeminismoaren ikuspegitik duten gaitasuna sendotzea lehentasunezko esku-hartze ildo bat da.

Irakasleei beren irakaslanean txertatzeko interesgarriak zitzaizkien gaiei buruzko onlineko prestakuntza emateak harrera ona izan zuen, eta, parte-hartzaileen balorazioaren arabera, krisi ekosozialari buruz zituzten ezagutzak eta gaitasuna handitzeko balio izan zuen. Bestalde, praktika egokiak trukatzeko egin zen topaketa birtualak jakintzak eta esperientziak ikusarazten lagundu zuen, eta ikuspegi ekofeminista eta ekosoziala indartu zuen. Azken topaketa horren formatuari esker, jende askok hartu ahal izan zuen parte, bakoitzaren denborak errespetatu ziren eta, konexio sinkronikorako nahiz asinkronikorako aukera eman zenez, kontziliazioa erraztu zen.

B15. Material didaktiko erakargarriak prestatzea, jende gehiagorengana iristeko.

Kalitate oneko material bisualki erakargarriak eta testuinguruan kokatuak prestatzeak bi gauzatarako balio du. Alde batetik, ikastetxeak eta ikasleak erakartzea lortu zen, eta, bestetik, aurkezpen-gutun gisa erabilita InteRedi etorkizunean ikastetxe berrietara iristea erraztuko dio. Hona hemen adibide batzuk:

- *Etorkizuna ez da saltzen. Emakume defendatzaileak lurrian* gida didaktikoa eta bideoa: <https://intered.org/recursos/guia-didactica-el-futuro-no-se-vende-mujeres-defensoras-en-pie-de-tierra>
- *Pertsonak eta planeta zaintzeko hezteak: jarduera ekosozialak ikasgeletan* gidaliburua: <https://intered.org/recursos/educar-para-el-cuidado-de-las-personas-y-el-planeta-actividades-ecosociales-en-las-aulas>
- *Zaintzen duen bizitzarantz: ekofeminismoa eta zero waste desazkundera* gidaliburua: <https://intered.org/recursos/manual-hacia-una-vida-que-cuida-ecofeminismo-y-decrecimiento-zero-waste>

JARRAIPENA

B16. Lantalde teknikoko kideen arteko topaketa- eta gogoeta-espazioak sortzeak zaintza-praktikak sustatzen ditu.

Lurralde arteko bilerak ez dira soilik artikulaziorako espazioak; lurraldeek elkar babesteko, zaintzeko, inspiratzeko, bidelaguntza egiteko, eta lurralde bakoitzeko praktika egokiak, zailtasunak eta hobetzeko proposamenak partekatze-ko espazioak ere badira. Urruntasuna zela-eta batez ere modu birtualean egin baziren ere, teknikariek nahiz koordinatzaileek oso positiboki baloratu dituzte bilera horiek proiektuaren gauzatze osoan.

B17. Sail anitzeko lantalde bat izateak ikuspegi zabalagoa izatea dakar.

InteReden lantalde eragilea teknikariek nahiz koordinatzaileek osatu zuten (zuzenean proiektua inplementatzen aritu ziren teknikariak, eta egoitza zentralerako nahiz lurralde-ordezkaritza bakoitzeko koordinatzaileak), eta, horri esker, esku-hartzea aberasgarriagoa izan zen, ekarpenak nork bere lekutik eta bere ezagutzetatik egin ahal izan zituelako, bidelagun gehiagorekin eta lan-kargak hobeto banatuta.

B18. Prozesuetan zerbitzu tekniko espezializatuen bidelaguntza izatea.

Lagungarria da horrelako zerbitzuek duten esperientziaren laguntza izatea, baina ez une zehatz batzuetan bakarrik, baizik eta prozesu zabalagoetan; esaterako, modua eginez aholkularitza-enpresa berberak prestatu ahal izan ditzan bere espezializazioaren barruko produktu edo materialak, proiektua ikuspegi orokor batetik ulertuko baita horrela. Horren adibide da, esaterako, teknikariei prestakuntza ematea eta, ondoren, berenganatu dituzten ezagutzak praktikan jartzeko laguntza ematea.

B19. Sistematizatzeak lana ulertzen eta baloratzen laguntzen du.

Sistematizazio-prozesu bat egin izana, tartean InteRedeko langileek saio presentzialetan parte hartuz (prozesu horretatik atera da dokumentu hau), funtsezkotzat jo dute parte hartutako taldekide guztiek, etorkizunera begira proiektuari eta testuinguruari buruz gogoeta kritikoa egiteko aukera eman duelako.



6. Gomendioak

Identifikatutako ikaskizun eta praktika egokietatik etorkizuneko esku-hartzeetan kontuan hartu beharreko gomendio batzuk atera ditzakegu. Hurrengo lerrotan azalduko ditugu gomendio horiek, proposamen praktiko eta zehatzen bidez, lagungarri izan daitezen ikuspegi ekofeministatik hezkuntza eraldatzailea sustatzeko egi-ten diren ekintzek inpaktua izateko.

MAILA ESTRATEGIKOA

- **Ikuspegi transbertsalek erakunde-kulturan benetan eragina izateko, ezin bestekoa da ikuspegiok tresna praktiko bihurtzea eta jendea horiek aplikatzeko prestatzea.** Abiapuntu gisa, gomendioa da erakunde edo ikastetxeko prozesu giltzarrietan txertatzeko tresna erraz eta eraginkorrak garatzeari eta ezartzeari ematea lehentasuna (adibidez, checklistak eta txantiloak). Izan ere, istantean ikuspegi guztiak jorratzea ezinezkoa denez, ariketa zintzoa egin behar dugu, zer gaitasun eta muga ditugun zintzoki aztertu, eta, gero, testuinguruaren arabera lehentasunak zehaztu eta aurrera pixkanaka egin, denborak aurrera egin ahala sakonago eta zabalago iristeko ikuspegi estrategikoa izanda. Ardatz interseksionalei erantzuteko (generoa, arraza, klasea, adina, sexu-orientazioa eta aniztasuna, besteak beste), egokia izan daiteke **laguntza tekniko espezializatua edo aliantzak** lortzea ikuspegi horien aplikazioan eskarmentua duten kolektibo, erakunde eta/edo pertsonekin.

- **Ezagutza kudeatzeko mekanismoak indartzea funtsezkoa da** akatsak ez errepikatzeko, geureganatutako ezagutzak aprobetxatzeko eta erakundearen koherentzia indartzeko. Garrantzitsua da, batetik, egindakoa dokumentatzea, eta, bestetik, gogoeta-prozesuak sortzea, emaitza jakin batzuk nola eta zergatik gertatu diren ulertzeko eta zer aldatu behar den ohartzeko. Ildo horretan, **edozein proiektu inplementatzean gutxienez bi sistematizazio-une formal sartzea gomendatzen dugu:** bata, proiektua jada inplementatzen ari garela,

mugarri den zerbaitekin bat etortzeko moduan, inplementazioa doitzeko aukera izateko; bestea, proiektua ixtean, ikaskizunak, praktika egokiak eta egiteke geratutako erronkak jasotzeko.

- Eskolaren, familiaren eta komunitatearen arteko lotura sendotzeko, pixkanaka eta modu errealistan egin behar dira urratsak, eta garrantzitsua da loturak josteko prozesuetan inbertitzea. Parte hartzeko **espazio irisgarri eta erantzunkideak sortzea** gomendatzen dugu, eta arreta jartzea emakumeek parte hartzea zaildu ohi duten genero-oztopoei, bai eta parte-hartzea baldintzatu ohi duten bestelako desparekotasun sozial eta kultura-aniztasun batzuei ere. **Inplikazio-mekanismo zehatz eta pixkanakakoak jarri** behar dira, hala nola batzorde mistoak, aldizkako kontsultak edo komunitate-topaketak, modua eman dezaten identitate kolektiboa eraikitzeko, gainkargarik sortu gabe. **Familiak, ikastetxeak eta lurraldeko erakunde edo plataformak artikulatzea** baliagarria izan daiteke prozesu hori indartzeko, bai eta ikuspegi intersektionaletik eragin sozial eta politikorako gaitasuna handitzeko ere.

- Hezkidetzaren arloko erakundeei eta GKEei gomendatzen diegu lehentasunez **hezkuntzarekin eta eremu sozialarekin lotutako heziketa-zikloetako, graduetako eta graduondoko ikasleak ekintzetan sartzea**: Gizarteratzea, Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Pedagogia, Gizarte Langintza, Psikologia, Gizarte Heziketa, Irakaskuntzako Prestakuntzako Masterra, etab. Gomendagarria da unibertsitateko ikasleen parte-hartzea aitortzea ECTS kredituak emanez; ikasleak horrelako ekimenetan inplikatzeko eta ikasten dutena akademikoki aintzat hartua izan dadin laguntzen du horrek.

- Oso egokia da **esku-hartze orotako fase guztietan lantalde teknikoa behar bestekoa eta egonkorra izatea**, eta zereginen eta arduren banaketa errealista izatea. InteReden proiektu honetatik, zehazki, haxe ondorioztatu dugu: gomendagarria dela inplementazioak iraun bitartean ordezkariak bakoitzean teknikariak egotea, koordinaziokoen inplikazioaz gain.

- **Erregulariki kideko espazioetan parte hartzeak (unibertsitateetakoak, auzoetakoak, elkarteenak...) bide ematen du konfiantzazko harremanak sendotzeko**, modu jarraituan komunikazioa izateko eta sinergiak sortzeko, eta horrela errazagoa da proposamenek bidea hastea eta jarraipena izatea eta, etorkizunean, esku-hartze berriak garatzea. Gomendio hori aurrekoarekin lotuta dago, ezinbestekoa baitu lantalde teknikoa behar bestekoa izatea, gako diren beste profil batzuek gainkargarik ez izateko (koordinaziokoak, adibidez).

IDENTIFIKAZIOA ETA DISEINUA

- Funtsezkoa da **proiektuaren formulazioa egitean familien parte-hartzeari buruzko xede eta adierazle errealistak zehaztea**. Horretarako, aldeztu aurretik azterketa intersektionala egin behar da, genero-ikuspegia kontuan hartuta, eta, gero, oztupoak identifikatu (esate baterako, denbora libre, zaintza-kargak, lan-baldintzak eta kultura- nahiz hizkuntza-arrakalak), eta familia guztiak inplikatzea errazteko estrategia espezifikoak planifikatu.

- Zer ekintza egingo diren identifikatzean funtsezkoa da **genero-ikuspegia kontuan duten partaidetzazko diagnostikoak egitea**, eta, horretan, irakasleak inplikatzea (eta talde eragilea, halakorik identifikatu bada), eta familiak ere bai. Identifikatzeko prozesu horretan, testuingurua ezagutzen ez dugunean, kanpoko laguntzara jotzeko baliabideak izateak helburua lantalde teknikoak gehiegi kargatu gabe lortzeko modua emango digu. Nolanahi ere, funtsezkoa da gurekin lankidetzan arituko diren pertsonak ezagutzea (haien ezaugarriak, motibazioak eta beharrak) eta informazio hori erabiltzea bai plangintza egiteko eta bai prozesuak aurrera egin ahala gauzak doitzeko, malgutasuna beharrezkoa baita ekintzek testuinguruari erantzutea eta konpromisoa eta motibazioa sustatzea lortzeko.

- Ikastetxeen eta gako diren kideen arteko harremanak iraunkorrak direnean, konfiantza handiagoa lortzen da, koordinazio hobea, eta esku-hartzeak eraginkorrak izatea errazagoa da. Horregatik, komeni da **beste ekintza batzuetan emaitza onak lortu ditugun aliatuekin lankidetzan modu jarraituan eta behin eta berriz aritzea**.

- **Proiektuko jarduerak, produktuak eta emaitzak hezkuntza-curriculumean txertatzea**, landuko dituen irakasgairako berriazko laguntza-materialak sortuta, irakasleari karga gehigarriarik eragin gabe gai eraldatzaileak sartzeko modu bat da.

- **Jardueren kronograma ikastetxeen urteko plangintzarekin bat etortzeko moduan antolatzea** lehentasunezkoa da hezkuntzan diharduten erakundeentzat. Askotan zaila izaten da eskola-egutegia diru-laguntzen egutegiarekin eta urte administratiboarekin bateratzea, baina hori esku-hartzea diseinatzean bertan planifikatzeak denbora-desorekak minimizatzen ditu. Gainera, **familiekin egitekoak diren ekintzak eskola-egutegian aurreikusitako datetara lotzeak** (ate irekien jardunaldiak, egun tematikoak, etab.) eta guraso-elkarteekin harremana sarri izateak familien parte-hartzea eta kontziliazioa errazten du.

- Beharrezkoa da GKEen eta hezkuntza-komunitateko funtsezko eragileen arteko **sareak sortzeko baliabideak eta jarduerak txertatzea proiektuetan**. Horretarako, oso formatu egokiak izaten dira; besteak beste, ituntze-mahaiak, foro tematikoak, ikaskuntza-komunitateak, sare birtualak eta jardunaldi komunitarioak. Horrelako espazioak, artikulaziorako balio izateaz gain, agintariengan eragiteko aliantza estrategikoak sustatzeko ere baliagarriak izan daitezke.

INPLEMENTAZIOA

- Inplikazio jarraitua eta parte-hartze aktiboa bultzatzeko, komeni da **irakasle-entzako prestakuntza-prozesuetako edukiak, erritmoa eta metodologia ego-kitzea**, irakasleen benetako beharrei erantzun diezaien. Horretarako, aldez aurretik jakin beharko dugu zer interes dituzten, prestakuntzarako zenbat denbora erabili ahalko duten, zer metodologia zaien erakargarrien... Lehenetasunezkoztat jotzen dugu irakasle-jardunerako gaitasunak indartzean ikuspegi ekofeminista txertatzea eta, alde horretatik, komeni da hezkuntza-jardunean ingurumen-justizia eta genero-berdintasuna txertatzeko tresna pedagogikoak ematea. Bestalde, balio erantsia da oposizio eta ziurtagiri ofizialetan aintzat hartuak izango liratekeen **prestakuntza aitortuak eta baliozkotuak sartzen** saiatzea (betiere dagokion arau-esparruan posible bada), horrek nabarmen areagotzen baititu irakasleen motibazioa eta konpromisoa.

- Positibotzat jo da **ikuspegi pedagogiko tradizionalekin modu orekatuan konbinatuta metodologia berritzaileak sartzea**, bai ikaskuntza-prozesuak eta bai kalitate oneko produktuak sortzea aberasgarriagoak gertatzen direlako. Konbinazio metodologiko horrek ikasleen motibazioa eta inplikazio aktiboa indartzen laguntzen du. Bestalde, nabarmendu nahi dugu garrantzitsua dela **lurrarekin eta lurraldearekin lotutako metodologia mistoak aplikatzea**, ikaskuntza esperientziala eta ingurunearekiko harremana bultzatzeko, landutako edukien eta ikasleen eguneroko errealitatearen arteko lotura sustatzeko, eta, horrela, ikasleen interesa eta konpromisoa indartzeko. Hezkuntza ekosoziala modu kokatuan lantzeko proposamen zehatz batzuk 19. orrialdean daude, adibide praktikoan taulan. .

- Gomendagarria da **jarduerak hizkuntzaren eta komunikazioaren aldetik irisgarriak direla bermatzea**; horretarako, komeni da materialak itzultzea eta, beharrezkoa bada, aldibereko interpretazioa eta/edo hizkuntza-bidelaguntza ziurtatzea. Ildo beretik, oso praktika egokia da **baliabide grafiko eta bisualak**

txertatzea, edukiak ulertzen laguntzeko eta parte-hartze inklusiboagoa bultzatzeko, eta, horri dagokionez, beharrezkoak diren egokitzapenak egitea (ezaugarri kulturalak, erreferentzia geografikoak, adin-taldea...). Era berean, garrantzitsua da **profil espezifikoen zako taldeak diseinatzea** eta prestakuntza-saioak haien ezaugarri eta beharretara egokitzea; homogeneousazioa saihestu behar da, eta *ad hoc* egokitzapenen alde egin, ikaskuntza-prozesuak egokiagoak, ekitatiboagoak eta eraginkorragoak izango direla ziurtatzeko.

- **Komunikazioa esku-hartzearen elementu estrategiko gisa planifikatzea** gomendatzen dugu, eta, hala, inplementazio osoan txertatzea eta proiektuaren helburuekiko koherentzia ziurtatzea. Bestalde, oso praktika egokia da **komunikazioan espezializatutako langileak izatea**. Izan ere, horrek erraztu egiten du hartzaileak behar bezala segmentatu eta mezua egokitzea, eta, gainera, sortutako materialak hobeto aprobetxatzen dira horrela, eta, beraz, materialen irismena eta inpaktua maximizatzen dira.

- Garrantzi handikoa da ikuspegi ekofeministatik aritzen diren **kanpoko zerbitzu espezializatuez baliatzea**: diseinatzaile grafikoak, gizarte-komunikazioan eta/edo proiektuak lantzen dituen gai espezifikoetan adituak, etab. Diziplinar-teko elkarlan horrek balio erantsi handia ematen die prozesuei eta azken produktuei. Horregatik, proiektuaren ikuspegiekin bat datozen material erakargarriak sortzeko gomendatzen dugu diseinuan eta elaborazioan inbertitzea, eta horretarako bideratzea aurrekontuko partida zehatz bat. Horrela, izan ere, materiala kalitate hobeagoa izango da, hedatzeko indar handiagoa izango du, eta hartzaileengan inpaktu handiagoa

- Gomendagarria da **ikasleak eragile prestatzaile gisa** ere inplikatzeko, berenganatzen dituzten ezagutzak berdinkideen artean erreplikatu ditzaten, eta, horretarako, inpaktua areagotzeko estrategia bat lantzea eta erakargarri gerta dakizkiekeen materialak sortzen inplikatzeko, erantzukidetasunetik prozesu eraldatzaileak sustatzeari begira.

- Epe luzera eraldaketa sakona eta inpaktu handikoa izan dadin, **proiektu osoan ikasleen parte-hartze aktiboa** sustatzea gomendatzen dugu. Horretarako, funtsezkoa da metodologia egokiak garatzea, ikasleen ahotsa ez dadin izan soilik kontsulta gisa entzuna, loteslea baizik; hala, parte hartzen ari diren prozesu eta denbora zehatzetan eragiteko ahalmena duten subjektu politikoak direla ziurtatu behar da.

JARRAIPENA

- Gomendagarria da erakundeko lantalde teknikoari nahiz inplikaturako pertsona guztiei proiektuaren helburu, irismen, erantzukizun eta mugak **garbi, modu gardenean eta behar besteko aurrerapenez jakinaraztea**.

- Funtsezkoa da **partaidetzazko metodologia kualitatiboak txertatzea** (esaterako, elkarriketa sakonak, partaidetzazko behaketa, talde fokalak eta parte-hartzaileen kontakizunak jasotzea), jarduerak eta prestakuntza-saioak ebaluatzen prozesuaren zati nagusi gisa. Gainditu egin behar da tresna kuantitatibo estandarizatuak besterik ez erabiltzea (adibidez, testak), eta prozesu horizontalagoak, gogoetazkoagoak eta eraldatzaileagoak sustatu behar dira.

- Beharrezkoa da **sail anitzeko koordinazio-espazio presentzialen kopurua handitzea**, proiektuen jarraipen operatiboa, entzute aktiboa, gogoeta partekatua eta zaintzak bultzatzeko. Aldi berean, maila estrategikoaren ataleko bigarren puntuan aurreratu dugun bezala, funtsezkotzat jo da **ebaluazioa eta sistematizazioa prozesu jarraitu eta transbertsal gisa proiektuaren implementazio osoan txertatzea**, eta ez soilik amaieran, kontuak ematera bideratuta. Horri dagokionez, ezinbestekoa da inplikaturak dauden eragile guztien ordezkari gisa ahalik eta ahots gehien egotea. Horrek prozesua aberastuko du, eta etengabe ikastea eta zaintza kolektiboa indartu.

- **Proiektu osoan zehar aholkularitza-zerbitzu espezializatuen laguntza izatea** gomendatzen dugu, prozesuak osorik garatu ahal izan ditzaten, produktu isolatutan segmentatu gabe. Bestalde, zenbait aliantzari modu jarraituan eus-teak koherentzia metodologikoa eta elkarrekiko konfiantza ekar badezake ere, garrantzitsua da **homogeneizazio-dinamikak saihestea, horrek ikuspegien eta jakintzen aniztasuna mugatu dezake-eta**. Pertsona edo profil berberak behin eta berriz kontratatzeak ikusmolde-aniztasuna murriztea ekar dezake, beti begirada berberak edo begirada partzialak erreproduzitzearen ondorioz, eta hori kalterako da ikuspegi transbertsaletan sakondu nahi bada (dekoloniala, aniztasuna, adina, generoa, etab.).

KONTAKIZUN EKOTOPIKOEN

